

## «CHE» Guevara

### pertsonaje ta mito

J. R. BELOKI

Bidezkoa ez ezik, beharrezkoa derizkiot "Che"-rengan mailla bi bereizteari. Elkar nahasian erabiltzeak, bide okerretik, desbidetik abiarazten gaitu. Fin gaiztora iritxitzeraifio.

"Che" pertsonaje ta mitoa dugu bidebatez. Lehenik pertsonaje.

Eta pertsonaje-ikusalde hontatik eman dan definiziorik egokiene-takoa honoko hau deritzat: "Che" Latinamerikar erreboluziogille ko-munista da.

Lehenik latinamerikar.

"Che" ta Latinamerika elkar erlazioan behar dira ulertu, ulertuko badira. "Che" izan dana izan bada, latinamerikarra izateagatik izan da. Ez naiz hemen ari arrazari eta odolari begira. "Che"-k "bere" postura hartzerakoan, bizitza osoa zuzendu ta definitu dion postura hartzerakoan, Latinamerika'ko situazioari begiratu zion eta arduratu zan. Ez da besterik.

Eta ni ez negoke zihur "Che" ulertzen dutanaren usteen, Latina-merika ulertu binbitartean. Hau pertsonaje-ari dagokionez. Ba, mito billakatzen dan ezkerro, zerbait bestelakorik da gertatzen.

Bidebatez, egun Latinamerika ulertzeko "Che"-ren bizitzak ba du zer ikusirik eta zer esan nahirik. "Che" lako baten bizitzak asko adierazten du bizitz horren kausa edo eragille billakatu dan errealidadeaz.

"Che" bigarrenik erreboluziogille da.

"Che" zerbaitek definitzen badu, erreboluzio harmatuaren proposatzaille izateak da, batez ere. Huxe du, hain zuzen, bereizgarri. "Che"-k zerbait bortizki planteatu badio munduari, erreboluzioaren eta erreboluzio harmatuaren auzia izan da. "Che"-k ez zuan reformismoan sinismenik, ez itxaropenik. "Che"-k erreboluzioa gogo zuan eta bera, tirozkoa. Ez zuan beste erreboluzio biderik somatzen, estruktura aldaketa baterako, benetazko aldaketa gerta zitekean baterako.

"Che"-k Ego-Amerika'ren aurrez-aurre harturiko postura gerri-llagillea da, gerrilleroa. Ez besterik. Ego-Amerika Vietnam berri bilakatu arazi.

"Che", hirugarrenez, komunista da.

Bere postura hortxe, komunismoan, hobe apika, marxismoan, oinarritu uste zuen egokien. Ez noski "Che" bat eta ados zetorrela egungo komunismoaren jokabideekin. "Che"-k bide berriak —nahiz ez erabat berriak— urratu ditu komunismoagan. Eterodoxo da. Komunista jarraiturik.

Hau da "Che" pertsonajea.

Pertsonaje honen gain mitoak usu eraiki dira. Zuzenak nola okerrak, Bidezkoak hala injustiziaz eraikiak, Danetariakoak. Ez goaz gu hemen mito hoiek banaka aztertzeraz. Bakarrik, "Che" pertsonajeak edo, hobe, posturak planteatu digun prolematikaren —mitologia- ren oinarrri denaren— berri laburra eman nahi dugu.

"Che" pertsonajea hiru hitzetan definitu dugu. Ez noski uste dugula honekin "Che" erabat konprenitu dugunik, gorde-leku ta zoko illun gabekoa guretzat denik. Gizon bat hiru hitzetan biltzea, edo hobe, banatzea, gizon hori "zerbait" ulertzea da, ezjakin osotik ateratzea. Deus gutxi gehiagorik, ordea. "Che" pertsonajea illunabarrean gelditzen da erabat guretzat, guk esanak esan.

"Che" bidebatez, ordea, postura bat da. "Che" ez zen sekula konformatu berak erreboluzioa egitearekin, teoria bat gogo zuen, "egia" bat. Bere erreboluzioetatik "lezioak" atera nahi zituen. Hortarakoxe aukeratu zuen Régis Debray. Beraz, lehen aitaturiko hiru hitzok

elkar batzen diranean, pertsonaje zehatz bat ez ezik baita postura bat osatzen dute.

Eta postura honetaz galdetu nahi dugu. Hots, hiru hitzok nola batzen diran eta batu ditezken.

Hiru hitzokin egin ditezken hainbat erlazio-modu guztiek beren prolema planteatzen digute.

Hona eredu zenbait:

Latinamerikar batek erreboluziogille behar al du izan? Edo "Che"-ren postura gizon soil bakar batek, "bere" bizitzan, hartutako postura da?

Latinamerikar erreboluziogilleak komunista behar al du izan? Ez al diteke beste erako erreboluziorik, beste zenbait dotriñatan oinarritutakorik?

Erreboluzioak harmatua behar al du izan?

Latinamerikar harmazko erreboluziogilleak komunista behar al du izan?

Eta abar eta abar... Erlazioak ugaltzen diren ala, prolemak ere ugaltzen dituzte. Erantzunak zailgotzen. Baiñan prolema hauek eta beste ahinitzek (hiru hitz hoi erlazioetatik ateratakoak) ihardespen bat behar dute. Ihardespen garbi ta laistera.